

## EURI-TTANTTA

### Gidoia


132 hitz

Egun guztia zeraman lñakik ezkerreko begian min hartuta. Goizean, kamioitik kaxa batzuk jaisten ari zela, hauts izpi bat sartu omen zitzaion begian.

Urduri zebilen harrezkero hauts izpi hura atera ezinik. Dendako gereziak bezain gorri zeukan begia.

Burrun-burrun...!

lñaki, itzelezko trumoi hura entzutean, dendako atera irten zen. Gora begira zegoen sudur puntan hazka egiten.



Eta bat-batean... Dzast!!!

Hura punteria ttantta harena!

Hirugarren ttantta lñaki fruta-saltzailearen ezkerreko begian sartu zen.

-Kaxuen!- bota zuen lñakik begia itxi zuenarekin batera.

Zabaldtu egin zuen gero. Eta berriro itxi. Eta gero ere zabaldtu. Eta atzera itxi. Eta...

Azkenik, pozaren pozez oihu egin eta saltoka hasi zen.

Oihu hartaz Miren, bere alaba, denda barruan zegoena, ikaratu zen.

Eta salto eginda, udare kaxa batzuekin estropezu egin zuen.

Poz-pozik zegoen lñaki. Euri-ttanta txiki hark atera baitzion begitik hauts izpi madarikatu hura.

*Euri-ttanta* Alfredo Gómez Cerdá (moldatuta)